

## MANEX ERDOZAINZI-ETXART

Jean Louis Davant

*Herria*, 2595. zenb., 2001

Iragan berriak ditugu Donapaleuko “Otsail Egunak”, Barantail horretan 5. aldiko “Manex Gogoan” elkarteak antolatu dituenak Frantziskotarren “Zabalik” etxean. Lehenbiziko arratsean aipagai genuen Mañex, duela 17 urte zendu zena 50 urtetan. Hortaz liburu bat idatzi du Xabier Lasa nafar gazteak: *Manex Erdozaintzi-Etxart, Bizitza eta pentsamendua*.

Liburu sotila bezain aberatsa, mamitsua, saltegietan dagoena, baita Donapaleuko “Zabalik” etxe horretan arras merke gainera, holako prezioan ez baitu balio gabe egoitea.

Lasaren ondotik, gure lekukotasuna eman dugu Mañexen adiskide batzuek, ni tarteko, eta han erran ditudanak errepikatuko ditut hemen, laburki aipatuz haren “budismoa”: kakotxen artean ezartzen dut hitza. Buda gabeko budismoa baitzen Mañexena, pentsa dezakezuen bezala, oroz gainetik giristinoa baitzen hori.

### KRISTAU “BUDISMOA”

Ene ustez, kristau erlizioan badaude bi alderdi, teilotu batean bezala, bi eskualde, bi joera eta isuri: bata dinamikoa, ernea, beti aitzina joaitea, konkistatzailea, hala nola Ameriken kolonizazioan ikusi dena, onerako eta txarrerako; bestea lasaia, baketsua, amultsua, burrunba, zalaparta, ttipikeria eta ontasunetatik askatua, hots budismoaren itxurakoa.

Ebanjelioan ere agertzen dira bi joera: batetik presa; Jainkoaren erreinua hor da, beraz hortan sar eta hori heda, berehala! Bestetik erakaspen hau: ez beti bizi biharkoaren arranguran eta kezkan, egun bakoitzari aski zaio bere zama! Eta munduko lotura tinkoetatik libra izpiritua...

San Frantsesengan ere aurkitzen dugu, eta nagusiki, bigarren eskualde hori, budismoaren

idurikoa: ontasunetatik aske bizitzea, zoriontsu; kreatura guztiekiko elkartasun lasaia (haurride otsoa, Kreaturen Kantorea, krexa bere kabalekin); baita, bistan dena, behartsuen ganako isuri handia.

Mañex ez da urrun joan bere “budismoaren” bila, hemen berean aurkitu du, erran nahi dut kristau altxorrean; Kristoren ganako sinesteak emaiten digun zaku handian ediren du behar zuena oro. Bere jiteak ere lagundu zuan, gizon lasai eta baketsua baitzen, denak ikusten baitzituen kasu handi batekin, begi onez.

### BETI AITZINA, ITZAIN URRATSEAN

Ez dakit badenez budismo geldirik; behar bada beren xilkolari so eta begira bizi diren europar batzuen. Ez zen geldia Mañexen “budismoa”, beti aitzina bazoan, itzain baten urratsean.

Haren olerkia ere beti aitzina doa itzain urratsean, CLAUDEL batena bezala, emeki eta segurki udalez eta irauliz, bertsetaren buruan eta bertsuaren ipularrean itzuliz neurtitz bat edo bertze berriz hartuz, eta hartatik berriz aitzina bultatuz bere urrats etengabea, ezin geldiarazian.

Mañexen urratsa, Iparla Pekotxean hazi zuena da, fedez eta jendetasunez aberatsa, indartsua, ezin gelditua. Jinkoan sinesten zuen, bistan da, baina halaber jendean, Jinkoaren iduriala eginean eta haren semeak salbatuan. Adiskide bati behin entzun diodan bezala, “Jainkoaren haur balin bagare ez gare nor nahi!”.

Udaberriko egun batez, ortziak jo zuen Mañexen idi pare, ildoan erdiz-erdi hila utzi. Baina itzaina, segur nago gutartean dagola, muga gabeko zazpigarren egunean sartua. Jainkoa bezala, baita haren gisa gure laguntzaile; erretretan izana gatik, ez baita geldirik egoiten itzaina.